

MERKATU SEGMENTAZIOA

Southern coast enpresa gazteengana bideratuko dugu, izan ere, munduaren eta bizi dugun errealitatearen etorkizuna dira. Horrez gain, gure produktuak, nagusientzat ere erakargarria izatea da gure helburua. Diseinuak, berritzaileak izango dira, baina aldi berean, hainbat modelo tradizional jarraituko ditugu. Diseinuen bidez naturarekiko dugun maitasuna eta ardura plasmatu nahi dugu eta gure bezerogaiak horretaz kontzientziatzen saiatuko gara.

Hasteko gure zerbitzuak Durangalde mailan emango ditugu. Behin gure enpresaren izena zabaldu ondoren Euskal Herri mailara egingo dugu salto, horrela mundu guztian zehar gure marka eta bere proposamena zabaltzera arte.

Hasiera batean euskara erabiliko dugu hizkuntza bezala eta euskal kulturaren inspiratuko gara gure diseinuak burutzeko. Beste ideia batzuetan ere oinarrituko gara etorkizunean, baina abiapuntutzat euskarari lotutako ideiak hartuko ditugu. Enpresa handitzen doan ahala hizkuntza eta ideia berriak sartzen joango gara.

Ekologismoa ere bultzatu nahi dugu gure enpresaren bidez, eta gure produktuak material ekologikoekin egingo ditugu. Horrez gain, gure web orrira ekologismoari loturiko bideoak igoko ditugu eta honela gai hauetan interesa daukan jendea erakarriko dugu.

Gure helburu nagusiak hauek dira:

- Natura errespetatu eta kutsaduraren aurka egin
- Kalitatezko materialekin arropa egitea
- Diseinu erakargarri eta originalak egitea
- Herrialde pobreetan bizi diren eta laguntza behar duen jendeari arropa ematea
- Jende pobrearen bizi kalitatea hobetu
- Gizartea, munduko arazoez kontzientziatu

Gure langileei soldata duin bat emango zaie eta produkzio kostu gutxiago duten herrialdeetara ez dugu gure enpresa eramango. Horrez gain, beharrezko segurtasun neurriak izango dituzte lanerako orduan.